

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

ERREMENTARI ETXEA ERABERRITZEA, III. ETA IV. ALDIAK

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2018

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☐ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☐ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☒ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarritzko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

Udalerriko biztanlegune nagusietako batean, udal-ekipamendu bat sortzea, hainbat zerbitzu eskaintzeko eta jarduerak antolatzeko, aldi berean, udalerriko biztanleen topagune eta bilgune izan dadin. Era berean, azpiegitura ostalaritzako establezimendu batez hornitzea, jarduera ekonomikoa sustatzeko xedez.

5.- Inbertsio totala: 263.603,08 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 131.801,54 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 31.843,88 euro

7.- Onuraduna:

GAMIZ-FIKAKO UDALA

- ☐ Publikoa
- ☒ Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

Gamiz-Fikako Udala

9.- Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Gamiz-Fika, Bizkaia

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Proiektuaren xedea da udalak Fikako herrigunean dagoen eraikin bat berreraikitzea, barruan, hainbat gela eta zerbitzu eskueran jartzeko: erabilera anitzeko gela bat, ludoteka, ordenagailu-gela, liburutegia, adinekoentzako gunea eta taberna-jatetxea. Hori guztia Fikako herrigunean, gaur egun, ez baitu halako aukerarik eskaintzen duen lokal publiko edo pribaturik.

Ostalaritzako establezimendua atontzean, gainera, lanpostuak sortu eta jarduera ekonomikoa bultzatuko da. Ostalaritzako eremuaren ustiapen-emakidak, berebat, ekipamenduaren zati baten kudeaketa dakar; horrek murriztu egingo du udalarentzako ekipamendu berriaren kudeaketagatiko kostua, eta, bide batez, aukera ematen du ekipamendu hori erabiltzeko ordutegiak luzatzeko.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Errementarin proposatu den egituraketa dela eta, udalerriko biztanle guztiek eta inguruko udalerrietako biztanleek ere azpiegitura hori erabiltzeko aukera dute eta, horrela, haien guztien arteko elkargune eta harremanetarako gunea bat sortuko da; giro hori oso mesedegarria izango da azpiegituraren eragin-eremuko dinamika soziokulturalak garatzerakoan.

Beste alde batetik, ostalaritzako establezimendua kudeatzeko, gutxienez, lanaldi osoko hiru lanpostu sortzea begiz jo da.